



BARREN
TOKIKOM



Aurten bai

Eguberri on! Covid gabeko garaia

Berriz itzuliko balitz
Covid gabeko garaia,
denok eukiko genuke
jendez betetako mahaia.
Iazko urtea balitz
bizitzaren ikasgaia
ez ginake elkartuko
ospatzeko gaurko jaia.

Esperantza badaukagu
irabazteko bataila.
Denok batera ospatu
ama, aita eta anaia,
kantu berriak kantatuz
aurrera doa bidaia
gure kasuan hori da ta
bizipozan osagaia.

Doinua: Habanera

Egilea: Maddi Arrieta Arrizabalaga (Batsi 1E gela)

2022 ELGOIBAR BHI

Uzuri **ELGOIBAR - DEBA**
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359

www.uzurioptika.com

Zoriontasuna, batzuetan,
betaurrekoak bezalakoa da:
bila eta bila jardun eta gera,
soinean duzula konturatzen zara.

2022 zoriontsua guztioi!

ASESORIA
GOAR

KONTABILITATEA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASESORIA LABORALA

San Bartolome, 2 beheka - Elgoibar Tel: 943 742 674 / 943 740 234
asesoria@asesoriagoar.com Faxa: 943 742 129

AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALERAKO OSAGAIAK ETA SISTEMAK

PNEUMAX

Zorionak
eta
urte berri on!

- Aplikazio osorako balioa
- 40 urtetik gora "automatizazio adimendunean"
- Ingeniaritza aplikatua
- Neurria egindako soluzioak
- Panelak
- Aurremuntatutako sistemak



PNEUMAX, S.A., Olaso Kalea 15, 52-53-54 eraikuntzak, 20870 Elgoibar (GIPUZKOA) Tel: 943 74 41 44 - 74, E-mail: pneumax@pneumax.es, web: pneumax.es



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa

Urtearekin batera, berri gaitzen

Zikloaren berritzeak aurrekoaren aztertzea eta datorrenaren aurreikuspena dakar. 2021ean zer ikasi dugun, zertan hobetu garen eta zer dugun hobetzeko aztertu behar da, 2022ra begira asmoak eta desioak ezartzeko. Sinplea dirudi, ezta?

Baina 2020-2021 urteak etengabeko tentsioan igaro ditugu, gertukoak galtzearen beldurrez, auzokoak nahiz lagunak etsai edo lotsagabe izendatuz, gaixotasun eta heriotza arriskuak

nonahi ikusiz... Hori dela eta, oso zaila zaigu geure bizitza nolakoa izan den hausnartzea geure gogo edo desioei dagokienean, hortan pentsatzea baimentzen digun gutxieneko segurtasun sentipena galdu egin dugulako. Geure bizia eta maite ditugunena arriskuan ikusten badugu, nola hasiko gara pentsatzen dugun bizimoduarekin gustura gauden edo zein erronka ezarri nahi diogun geure buruari?

Beldurak alerta egoeran mantentzen gaitu, eta geure gorputza mantentzen du edozein momentutan ihesi ateratzeko behar duen tentsioan; gauden lekuan egoteko gaitasuna kenduz, eta urtearen balantzea egiteko haus-

nartze ariketa ezinduz. Erabaki garrantzitsuak hartzeko hausnarketa puntu hori izatea ezinbestekoa da, hartu behar dugun erabakiaren inguruko analisia egiteko, onurak eta galerak aztertzeko eta luzera begirako ondorioak aurreikusteko.

Erronka luzatzen dizuet: astebetetz itzali telebista, irratia eta sakelakoa. Bizi, egon, hitz egin, pentsatu, jolastu. Bizirik jarraitzen dugula eta geuk erabakitako bizimodua izateko aukera dugula konturatzen garenean ahalko gara kontziente izan dugun zortiaz. Eskertza sentipena piztu genezake eta urte berriarekin batera, beste gorpuzkera batekin heldu 2022ari. Urte berri on!

“Bizirik jarraitzen dugula eta geuk erabakitako bizimodua izateko aukera dugula konturatzen garenean ahalko gara kontziente izan dugun zortiaz”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Sustatzailearen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitza eta klik eta eskuitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jar-tzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ ASKI DA!

Urteberri on! Bi urte dira pandemia desagerrarazi ez duten murrizpen, manipulazio, debeku, eta umilazioez "bizirauten", baina Covid pasearen ezarpenak marra gorri bat igaro du.

Nola ospitale eta erresidentzietan ateak ixtea? Nola umeei kirol eta kultur aretoetan sarrera eragozteak? Nola gurasoei jar-duerak ikustea debekatu? Nola adindunak eta gaixoak ezin zaindu? Nolatan hamaika zapalketa? Humanitatea galdu al da? Nola heldu da zenbait jende txertatu eta ez-txertatuen arteko banaketa faltsua normaltasunez ikustera?

Gogoratu txertatugabeek badituztela hainbat arrazoi erabaki horretarako:

- Legeak dio txertatzea aukera dela, ez obligazioa.
- Txertoek teorikoki norbanakoa babesten dute eta ez daukate zerikusirik birusaren transmisioan. Jakina da txertatu arren kutsa gaitzkeela eta kutsa dezakegula.
- Norbanakoaz gain inork ez du bere ardurapean hartzen terapia geniko esperimental honen ondorioak.
- Inokulazio masiboak ez dirudi emaitzarik eman duenik. Are, txertoaren ondorio lazgarriak etengabe ari dira jasotzen, haurrengan ere. Horren berri ez du EITBk ematen.

Pasearen helburua osasunetik harago doala uste dugu:

- Interes politiko-ekonomikoak ezkutatzea.
- Erruduna lagun urkoa bilakatzea eta agintariak aldiz errugabe azaltzea. Agintarienganako auzo lotsa sentitzen dugu. Penagarria oposizioko alderdi "progresisten" makurtzea.
- Terrorismo mediatikoaren bidez banaketa soziala bilatu da, pentsaezinak ziren neurri totalitarioak ezarriz. Legeen, askatasunen, pribatutasunaren eta giza eskubideen urraketa sinestezina eginez.

- Txertatze etengabearen munstroa elikatzen jarraitzea.

Txertatu ala ez, itsasontzi berdinean gaude, ala zenbat ziztadatarako prest gaude? 4, 5, 6...?

Erresistentzia baketsua ez da erraza baina hainbat iradokizun:

- Baikorra izan. Gero eta gehiago gara amesgaiztoari bukaera eman nahi diogunak, esanguratsua Donostian abenduan egin zen manifestazio erraldoia.

- Lasai egon. Ez ote zitzaien inori bururatuko naturaren legeen aurka joan eta irabazle aterako zirenik, ezta?

- Adierazi nortasuna, maitasuna, elkartasuna, baina esku-bideak defendatu. Badaude asaldatutako abokatu asko ere lanean guretzako.

- Azkenik, ugaritzen ari diren sareetara batu! Adibidez, gure Telegram kanalera ongiatorria zara! t.me/iratzargailua.

Besarkada!!!

BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

HEGO EUSKAL HERRIA ETA ESPAINIA:

32€ (Elgoibarko Izarrako bazkideek **26€**)

IPAR EUSKAL HERRIA ETA EUROPA:

46€ (Elgoibarko Izarrako bazkideek **36€**)

EUROPATIK KANPO:

60€ (Elgoibarko Izarrako bazkideek **48€**)

Urtarrilaren 15ean egingo da kobraketa.

Eskuz ordaintzen duzuenok Elgoibarko Izarrako bulegotik pasa zaitezketeko edo kontuan egin ordainketa.

Harremanetarako: **943 744 112** edo barren@elgoibarkoizarra.eus



Angel Kortaberria Idigoras

"Otsua"

2021eko abenduaren 27an hil zen,
74 urte zituela.



Betirako gure bihotzean.

Armando, M. Juli, Hodei,
Garazi, Abraham, Dani eta June.



▶ Betikoa. Gertukoa. Eskatu eta eskaini euskaraz.

Tokiko merkataritzan bezero zein dendarietan euskararen erabilera sustatzera bideratutako sentsibilizazio kanpaina dauka indarrean Eusko Jaurlaritzak. Udalak, eta Elgoibarko Izarrak, herritarrek animatu nahi dituzte kanpaina honen mezuarekin bat egitera. Elgoibarren 29 merkataritza zerbitzuek hartu dute parte kanpainan eta horietako bi ordezkariak hitz egin dute kanpainako oinarriek beren dendetan duten eraginaz.

IDOIA OIARZABAL ETA ANE RICHARD.....
Arauri lurrindegia eta estetika zentroa




Urtarilean beteko dira 53 urte Conchi Aranok Errosario ka-
lean Arauri lurrindenda ireki zuenetik. Hogei urte badira
Idoia Oiarzabal, alaba, denda lanean hasi zela; bera
barruan estezista lanetan eta ama dendari. Conchik erretiroa hartu
zuenean Idoiak erreleboa hartu zion eta Ane Richardekin batera
biek dihardute dendari eta estetizista lanetan, Conchiren lagun-
tzarik falta ez zaien arren.

Betiko merkataritza zabaldu nahi dute herrian, baina urtetako
garapenean sekulako aldaketa sumatu dutela esan digute: "Ohi-
turak aldatu egin dira. Gure lana salmenta da, baina erosteko era
asko aldatu da. Lehenengo merkatalgune handiak gertuan zabal-
tzeari izan genion beldurra, eta gero, Internet etorri zen. Makil-
kada gogorragoa izan zen hori. Jendea ibili, badabil, eta guk
denda zabalik mantentzea lorpena da. Oraindik hemen gaude,
noiz arte ez dakigun arren".

Gertukoa da merkataritzaren beste ezaugarri bat: "Gertuko-
tasuna eskaintzen dugu, guri gure lana gustatzen zaigulako eta
bezeroek hori jasotzen dutelako. Gu herrikoak izateak berak ere
herritarrei nolabaiteko konfiantza ematen diela pentsatzen dugu".

Kanpainaren helburua bezeroak euskaraz eskatzera animatzea
eta dendariak ere hala eskaintzea da, eta Idoiak horretan ahale-
gintzen dela esan digu: "Nik euskaraz agurtzen ditut, telefonoa
euskaraz erantzuten dut, euskaraz dakitenei euskaraz egiten diet;
gaztelaniaz datozenei gaztelaniaz, niretzat ez baita erosoia norbait
gaztelaniaz hasi eta nik euskaraz erantzutea; norbait ingelesez ger-
turatuz gero ere, soiatu izan naiz noizbait, gure helburua saltzea
delako. Niretzat gogorrena da norbait gaztelaniaz berbetan sartu
eta niri hitzen batek euskaraz ihes eginez gero, bera euskarara pa-
satzea. Horrelakoetan pentsatzen dut: hau zergatik sartu da gaz-
telaniaz eta nik gaztelaniaz jarraitu oharu gabe?".

IRUNE ARRIOLA ANDONEGI.....
Botika



Irene Arriola 2019ko urrian hasi zen Kalegoen plazako farma-
zian eta gaur egun lau langilek dihardute bertan. Horien artean
bada Euskal Herriko kanpokoak izanik euskaraz urte gutxian ikasi
duen langilerik ere.

Merkatariek herritarrekiko gertukotasuna ematen dutela uste du
Irunek: "Izango da jenderik eguneko elkarriketa apurra denda-
riekin baino ez dituztenak. Botiken inguruko zalantzak dituztenean,
esaterako, nik uste dut guri errazago galdetzen dizkigutela medi-
kuei baino. Medikuari ondo ulertu ez diotenei guri eskatzen digute
azapenak emateko edo egin beharrekoa kaxan idazteko. Jendeak
badu guran konfiantza".


Konfiantza hori lortzeko hizkuntza izan daiteke bide bat. "Eus-
karaz datozenei eskertzen dute tratua euskaraz izatea. Osasun
kontuak ondo ulertzea oso garrantzitsua da eta ama hizkuntza
euskaraz duten askorentzat zaila da azalpenak gaztelaniaz ema-
tea eta jasotzea. Gurean lehen hitza euskaraz egiten dugu eta
gero bere erantzunaren arabera jarraitzen du elkarriketak. Hala
ere, gurean askok egiten dute euskaraz", esan digu Irunek.

Ohiko bezero euskaldunekin euskaraz egiten dute, noski,
baina Irunek jaso du sorpresarik hizkuntzarekin. "Euskaraldia edo
oraingoa bezalako egitasmoetan gertatu izan zait inondik inora
euskaraz ez zekiela pentsatzen nuen jendeak niri euskaraz egitea,
eta ondo gainera. Nik Euskal Herriko kanpo jaiotakoa zela ne-
kienez, ordura arte gaztelaniaz egiten nion, baina ordutik euska-
raz hitz egiten jarraitu dugu".

Horrelako kanpainak egitea laguntza izan daitekeela uste du
Irunek. "Batzuekin lortu liteke pixka bat gehiago euskaraz hitz egi-
tea horrelako jardueretan eta jarraituz gero, primeran! Nik esango
nuke behin hasiz gero mantentzen dutela euskararako joera gure-
kin".

5.501 sinadura bildu ditu 24/7 plataformak, anbulatorioa 24 orduz eta astean zazpi egunez zabaltzeko eskatzeko

Sinadura bilketaren balantzea egin du 24/7 plataformak eta "pozik" agertu dira lortutako emaitzarekin. 4.000 sinadura biltzeko helburuarekin ekin zuten kanpaina, eta 5.501 lortu dituzte. Elgoibartarrak zoriondu dituzte, eta eskerrak eman dizkiete sinatu duten guztiei eta sinadurak biltzen lagundu dieten norbanako eta establezimenduei. 70 lagun ibili dira sinadurak biltzen, eta herriko dendarien, ostalarien eta hainbat enpresetako sindikatuen laguntza izan dute ekimenean. Baina emaitzak bezain beste edo gehiago jendearen jarrerak poztu ditu. Era berean, herritarrek egoera honekin "haserre" daudela nabarmendu dute, eta uste dute, koronabirusaren pandemia aitzaki bat baino ez dela izan osasungintza publikoan murrizketak egiteko. "Gurean orain dela hamar urte hasi ziren murrizketekin, eta orduan prestatutako plan bat jarraitu dute, larrialdi zerbitzua erabat ezabatu duten arte". Gaugerora Duintasuna taldeak orain dela urtebete mozio bat aurkeztu zuen Udalean egoera hau salatuz eta Elgoibarko anbulatorioko zerbitzua lehengora itzultzeko eskatuz, baina orduan ez zuen aurrera egin mozioak. Eskaera bera egin zioten arartekoari, eta oso ondo hartu zituztela azaldu dute, baina oraindik erantzunaren zain daudela. Hortaz, bigarren mozio bat aurkeztu dute Udalean Elkarrekin-Podemos alderdiaren bitartez, eta oraingoan aurrera egin du, Elkarrekin-Podemos eta EHBilduren aldeko botoekin. EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren. Herritarrek emandako babesak indarra eman diela nabarmendu dute, eta lanean jarraitzeko konpromisoa hartu dute, Elgoibarko anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zabaltzea lortu arte. Orain 5.501 sinadura horiek Osakidetza zein modutan eramango dituzten aztertuko dute.



Indarkeria matxistak 2021ean hildako emakumeak omendu dituzte



Indarkeria matxistak 43 emakume hil zituen Espainian 2021ean, eta horien guztien oroimenaren alde elkarretaratzea egin zuten Elgoibarren abenduaren 30ean. Merkatu plaza aurrean egin zuten, hain zuzen ere, indarkeria matxistak hiltzen dituen emakumeak zenbatzen dituen markagailuaren azpian. "Emakumeengano indarkeriari ez!" lelopean batu ziren, lilako kideek deituta.

Urrategi baserrirako bidea konpondu du Elgoibarko Udalak



Azaroaren erdialdetik abenduaren hasierara bitartean izandako euriteek Urrategi baserrirako bidean kalteak eragin zituzten. Luizi baten ondorioz, bidea hondatu egin zen, eta Elgoibarko Udalak konpontze lanak egin ditu. Lurra egonkortu eta zoladura berria ezarri dute bertan. Lan horiek egiteko 7.300 euro + BEZ erabili dituzte.

San Roke kaleko igogailua ireki dute Eguberrietan

Sei hilabeteko lanen ondoren, erabilgarri dago San Roke kaleko igogailu publikoa. Olai-zaga Kiroldegiko igerileku berria egiteko obraren baitan kokatu da proiektu hau, eta guztira 263.536,65 euroko aurrekontua izan du, BEZ gabe. Igogailuak 11,7 metroko altuera du, eta zortzi pertsonentzako lekua dauka.



Igogailu berriak San Roke eta Arregitorre azuzoen arteko irisgarritasuna hobetuko du, kiroldegitik Arregitorre 2 zenbakian dagoen Mekaren parera iristea ahalbidetuko duelako.

Urazandiko eta San Rokeko igogailuak martxan dira, baina Udalak herriko irisgarritasuna hobetzen jarraitzeko hainbat proiektu ditu eskuartean: Errotaberriko igogailu bat jarriko dute egungo eskailera mekanikoak ordeztuz. Udalaren aurreikuspenen arabera, obrak 2022ko bigarren hiruhilekoaren hasieran hasiko dira. Era berean, King Kong-eko zubia berritzea ere eskuartean dute, eta proiektua idazten hasteko proiektua lizitazio-fasean dago. Obra 2022ko azken hiruhilekoan lizitatzea aurreikusi dute.

Urtearen bigarren erdian zabalduko dute ludoteka berria

Elgoibarko Udalak lizitazioa atera du Bola-tokiko parkean ludoteka berria egiteko proiektua. Kontratu honen aurrekontua 253.015,82 eurokoa da (BEZa barne), eta eskaintzak aurkezteko epea urtarrilaren 13an itxiko dute. Obrak egiteko epea lau hilabetekoa izango da, eta Udalak aurreratu du urtearen bigarren seihilekoan zabaldu nahi duela ludoteka. Lokal berriaren azalera eraikia 194m²-koa izango da, eta horietatik 173,79m² izango dira erabilgarriak. Eskolak eta tailerrak emateko balio dezakeen eta haur eta nerabeentzako aisialdirako lokal bat izateko planteamendua da Udalarena. Hori horrela, gaur egungo ludotekan eskaintzen diren honako zerbitzu hauek mantenduko dituzte: harrera, mahai jolasen gela, hezitzaile gela, erabilera anitzeko gela, tailerra, komunak eta biltegia. Ludoteka berriaren altzarien eta edukien diseinua herriko haur eta nerabeekin batera egiteko asmoa dutela aurreratu dute.

Udal arduradunek uste dute kokapen berria "berreziki erakargarria" dela ludotekarentzat: "Herriaren erdian dago, parke baten ondoan, eta, horri esker, jarduerak egin daitezke kanpoan". Aldi berean, eremu horri "bizia" eman nahi dio Udalak.

Txillarreko sukaldeko elkarrizketak jende aurrera ekarri zituzten Jesus Egigurenek, Pello Rubiok eta Arnaldo Otegi

Elgoibarko Udaleko Bizikidetza Mahaiak, Herriaren Bizikidetza Foroarekin elkarlanean, *Bizikidetza ereiten* jardunaldien bigarren edizioa antolatu zuen abendurako, eta horren baitan egin zuten IMHn mahaingurua abenduaren 22an, *Bakearen sukaldeak* izenburupean. Arnaldo Otegi, Jesus Egiguren eta Pello Rubiok egin zuten berba Maider Marañña Baketik Fundazioko teknikariaren gidaritzapean. 75 lagun inguru gerturatu ziren aretora eta elkarrizketen harira izandako kontu bitxiak kontatu zituzten hiru hizlariak.

Ekitaldiaren hasieran, bestalde, Paco Egeari (Elgoibar 1950-2021) omenaldi xume bat egin zioten.

PSE-EEko sailburu eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza kontseilari izan zen EAJ-PSE gobernuan eta 1999az geroztik, eta Txillarreko elkarrizketa politikoak sustatu zituen. Bere lana aintzat hartuz hiru hizlariak aitortpen hitzak izan zituzten Egearentzat.





Tuneleko beldurrei gomekin tiraka

Ikus-entzunezko komunikazio ikasketak egin eta arlo horretan jardun da lanean Eire Vila elgoibartarra. Handik aldendu eta ibilbide berri bati ekin zion gero eta IDarte ikastetxean barne diseinu ikasketak egiten dihardu orain. Arte arloko bi bide dira, ordea, eta sormena lantzen dute. Sormena eta irudimena landuz eskolako ikaskideekin proiektu berezi bat egin zuten barne diseinua kanpora ateraz. Bilboko lur azpiko pasabide bat diseinatu eta moldatu zuten, besteak beste, horrelako tunelek izan dezaketen arriskua eta sortu dezaketen beldurra agerian jartzeko. Gomak izan ziren diseinuaren ardatz eta gu gomei tiraka jardun gara diseinatzailearekin. Argazkiak: Ane Gonzalez.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Bilbao Bizkaia Desing Week egin zuten Bilbon azaroan, diseinu arkitektonikoa eta grafikoa landuz. Antolatzaileek IDarte eskolako proposamena egin eta Eire Vilaren taldeak aurkeztutako proiektua aukeratu zuten Bilboko Deustu auzoko San Pablo X. lur azpiko pasabidea diseinu berezi bat eginez egokitzeko. Diseinua bera berezia izateaz gain, honekin eragin nahi izan zutena berezia, baina era berean arriskuaren isla izatea nahi zuten. "Gure interbentzioa asteberako zen eta hori kontuan izanda aproposa iruditu zitzaigun tunelen izaera azalduz inguru hori deserosoago bihurtu eta jendeari hausnarketa eragitea. Iku-sarazi nahi izan dugu zati hori gizakion aurrean lurperatu duena gizakia bera izan dela, ez ibilgailua. Horrek ere eztabaida sortu zezakeen", esan du Eirek.

Zer dela eta irudikatu nahi zituzten beldurra, arriskua eta trabak? Bilbora joan ziren argazkiak atera eta neurriak hartzerako, gero planoak egiteko, baina elkarrizketak ere egin zizkieten handik pasatzen zirenei Eirek eta taldekideek: "Galdetu genien zein maiztasunekin erabiltzen zuten pasabidea, zein ordutan eta zein sentsazio zeuzkaten handik pasatzerakoan. Aurrez susmoa bage-

nekan, baina elkarrizketek baieztatu ziguten goiko zebra-bidea aurreztearren eta azkarrago pasatzeko erabiltzen zutela. Horrez gain, neskek batez ere, esan ziguten egunez zeharkatzen zutela pasabidea, jende asko zebilenean, baina gauzez ezetz. Sentsazioak irisgarritasun falta, zikinkeria, argitasun falta eta beldurra ziren, azken hori batez ere emakumeengan, gizonek esatekotan erdi ezkutuan esan ziguten".

Diseinatzaileen helburua ez zen tunela erosoagoa bihurtzea edo tunel izaeraren ezaugarriak aldatzea, baina pasabidearen erabiltzaileei galdetu zieten ea zer gustatuko litzaieken tunelari egitea atseginagoa izan zedin. Eirek azaldu du 60 urte inguruko emakume batek esan ziela tunelari edo zer gauza eginda ere ez zaiola inoiz tunel izaera kenduko. "Iruditu zitzaigun klabe argia zela baieztapen hori eta gure proiektua horri tiraka eraiki genuen".

GOMAK ETA HORMA HORIAK

Deserosotasun sentimendu hori irudikatzeko nola diseinatu behar zuten pentsatzea izan zen hurrengo pausoa. "Goma iruditu zitzaigun material egokia eta horri tiraka modulu batzuk eraiki ge-

nituen gomen elastikotasuna edo bere propietateak kontuan hartu eta esperientzian sartzeko. Goma batekin elkarrekintza dago, ez da zurruna, ikutu ezin duguna, norberak keinu bat eginez gero erantzun egiten du. Mertzeriako goma zapala erabili dugu, jolaserako erabiltzen genuena bezalakoa, baina zabalagoa. Goma hori emakumeekin lotzen dugu eta nahi genuen hausnarketa jostea”, azaldu du Eirek.

Gomei itxura korapilatsua emateaz gain, pasabideko hormak horiz margotu dituzte. Eireren esanetan, “arrisku kartel asko horiak dira eta gainera nahi genuen kolore deigarri bat izatea, urrutitik ikusi ahal izateko. Orain argitasun gehiago dago barruan”.

Diseinua prestatu ezezik beraiek gauzatu dute diseinua bera irakasleen eta ikaskide batzuen laguntzaz. Barne diseinua ikasi arren hortik harago proiektatu dute. “Urte hauetan egin ditugun erronkak ez dira izan lau horma arteko etxebizitza edo bulegoen diseinu soilak, horrelako proiektuen aurrean gure ideiak espresatu eta irudikatzeko bidea ireki dugu. Egitasmo hau gogorra, baina era berean aberasgarria izan da, asko ikasi dugu”.

Egitasmoa gogorra izan da eta bazuten susmorik jarritako gomen artetik jendea ez zela gustura pasako eta beste batzuk goma jokoa bezala hartuko zutela. Beraiek, ordea, “hausnarketa plaza” bihurtu nahi zuten tunela bakoitzak bere irakurketa egiteko. Astebeteko egitasmoa bi egunetan geratu zen, ordea, nork eta nola jakin gabe gomak moztu eta azalpenak emanez sarreretan ipinitako kartelak ere kendu zizkietelako. Hala ere, jendearen erreakzioak ikusteko aukera izan zuten. “Batzuk barrez pasatu ziren; beste batzuk kexatu egin ziren, baina umorez, eta beste batzuk haserre. Bagenekien ez zela denon gustukoa izango, baina pena sentitu dugu, ez dugulako helburua erabat bete: astebetez beste baten azalean egotea. Hor hausnarketa potentia dago egiteko. Nahi genuen erabiltzaileak azal horretan jartzea eta sentitzea batzuk benetan oso desoroso sentitzen direla. Aldarrikatu nahi genuen tunel hau bezalakoak diren puntu beltzak ez direla existitu behar”. Horrelako interbentzioak denbora tarte baterako behintzat beste gune batzuetan ere egitea aproposa litzatekeela esan diete ingurukoek. Elgoibarren ere badaude Eireren ustez horrelako pasabideak. “Gizonen begiradatik egindako hirigintza islatzen dute eta saiatu behar gara beste begirada batetik planteatzen hirigintza bera”.

MARRAZKIAK AZALPEN

Barnean zein kanpoan, diseinuan gustura ari da Eire eta ikasketetan sorpresak hartu baditu ere, beretzat abentura bat da. “Ikas-



ten hasi aurretik pentsatu nuen ez zela dekorazio hutsa izango eta barne diseinatzaileok arkitektuek egiten dutena egin ezin badugu ere ikasi beharreko oinarri asko oso teknikoak dira. Ikasgai atseginak ere badaude diseinu edo sormenera bideratzen gaituztenak. Niretzat marraztea bera erronka izan da, hasieran ez nekien ezer ere marrazten, baina nire buruari erakutsi diot gai naizela eta orain zenbait azalpen marrazki bidez ere ematen ditut”.

Eirek aurrera begirako ez du egitasmo zehatzik eraikin edo gune bat diseinatzeko, “etorriko denari aurre egingo diot. Desiorik jartzen ez diodan bezala ez diot mugarik jartzen”, esan du. Ez dio, ez, mugarik jarri eta jadanik jaso dute eskolan beste proiektu erreala baterako eskaria. Espazio bat eraldatzeko egingo dute lan diseinurako dituzten ideiak paper gainetik beste gune batzuetara eramanez.

► DORE CASTILLO ESTRELLA

SUKALDARIA ETA SOMMELIERRA

Elgoibarko Viento Sur gastrotekako sukaldaria eta arduraduna da Dore Castillo Estrella (Eibar, 1989). Aiala sukaldaritzan eskolan egin zituen sukaldaritzan ikasketak eta sommelier ere bada. Tabernako barra pintxoz beteta izaten du eta ardo trago batekin lagundu nahi duenak aukera zabala dauka. Hori estimatzen dute herritarrek eta baita Repsol gidako 'Soletes' izendapena eman diotenen ere. Irabazi izan dituen pintxo lehiaketetarako ideia berriak lantzen dituen sukalde txikitik irtenda hitz egin du gurekin.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



“Pintxoa ahoan sartzerakoan zapore nahasteak liluratu egin behar gaitu”

◆ Nola hasi zinen ostalaritza arloan lanean?

Umetan, gurasoekin, sukaldean ibiltzen nintzen batzuetan, baina ez nuen pentsatu inoiz sukaldari izango nintzenik. Taberretan lanean ibili nintzen eta gero, Karlos Argiñanoren Aiala sukaldaritzan eskolan egin nituen ikasketak. Txaltxa jabetxean aritu nintzen Eibarren eta asko ikasi nuen. Jatekoetz gain, ardo ere gustuko dut eta sommelier masterra egin nuen. Viento Surren Carlos La Hozekin hasi nintzen. Sukaldari eta sommelier lanean trebea nintzela uste zuen, eta gastroteka uztekoa zenez, bikoteak eta biok heldu genion proiektuari. Ardo kontuak pixka bat alboratuak ditut eta sukaldean dihardut orain. Guztira bost sukaldari aritzen gara sukaldean txandaka.

◆ Zure ibilbidean barrena hainbat pintxo lehiaketa irabazi dituzu, ezta?

2018an, taberna hartu berritan, Elgoibarko pintxo lehiaketan parte hartu eta irabazi egin genuen, baita 2019an ere. Elgoibarkoa berriz egiteko zain nago, herriko jendea gustura izatea nahi dudalako.

◆ Pandemia gogorra izan da ostalarientzat.

2020an itxi egin behar izan genuen eta oso gogorra izan zen, ez baigenekien zer gertatuko zen. Gero berriz lanean hasi ginen eta terraza daukagunez, hori laguntza izan zen guretzat.

Hala ere, orduan izan genituen zailtasunak. Ez geunden egoerara ohituta eta zaila zen bezeroak kontrolatzea, beste leku batzuetan muskorik gabe egoteko aukera ematen zietela esaten ziguten eta haserretu egiten ziren, bazirudien errudunak gu ginela. Beste zenbait bezero, ordea, guregana etorri dira arauak zuzen bete ditugulako: distantziak mantenduz, musukoa jarritz... 2021ean "normaltasunera" itzuli ginen eta orduan bezero batek jakinarazi zigun Repsol Solete bat eman zigutela.

◆ Zer da 'Soletes Repsol'?

Repsol Gidak eguzkiak banatzen ditu ostalaritza establezimenduen kalitatea maila nabarmentzeko. 'Soletes' izeneko kalifikazio berri bat sortu du, tamaina txikiko establezimenduentzat. Xarmadun lokalak saritzen dituzte, auzoetako tabernak, behin joan ondoren bezeroak itzultzen diren horietakoak, modu egokian hartu dituztelako, giro atseginagatik, produktuak gustatu zaizkielako... Askotariko pintxoak ditugula baloratzeaz gain, ardo aukera zabala dugula ere estimatu dute. Jendeak beti berdinetara jotzen du, baina gurera etorri gero, jakin badaki beste ezberdinen bat edan ahal izango duela. Sorpresa polita izan zen guretzat izendapen hau jasotzea, 1.000 jateke eta tabernen artean Debabarreneko lehenak izan ginelako. Inguruan badira beste toki batzuk gauza onak egiten dituztenak, baina etorri zenari guk eskainitakoa gus-

'Bonba atlantikoa'-rekin irabazi zuen Bacalaos Alcortaren lehiaketa. Bakailao tripakiekin betetako bonba da saltsan barazkiekin.



tatu zitzaion. Izendapen honekin taberna ezetik herria ere agerian ipintzen dugu Espainian. Udan, esaterako, jende asko horregatik etorri da eta guri ere balio izan digu lana ondo egiten ari garela benetan jakiteko.

♦ **Hori ez da izan aurten lortu duzun sari bakarra. 'Bacalaos Alcorta' Pintxo Lehiaketan ere bi sari jaso dituzu.**

Bai. Ez nintzen batere seguru joan maila handiko sukaldariekin lehiatu behar nintzelako, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Bizkaiko bakailao pintxo lehiaketan aurten irabazleekin. Hala ere, nire pintxoak ona zela sinetsita nongoen, zerbait lortzeko aproposa, baina irabazle nintzela esan zidatenean harritu egin nintzen, ez nuelako espero. Gainera bi sari eskuratu nituen: Debabarreneko pintxorik onena eta 0 Km. pintxorik onena.

♦ **Zein pintxo aurkeztu zenuen azken lehiaketa horretara?**

Bonba atlantikoa: bakailao tripakiekin betetako bonba saltsan barazkiekin. Bonba izena jarri diot kroketa baten parekoa delako, baina bexamelik gabe. Tripakiak arrautza eta garbantzua irinetan pasatu eta frijitzerakoan bakailaoa desegiten denean lehertu egin dela dirudi. Horri gehitu nizkion pil-pil beltza, lodosako piperren purea, bakailaoaren azala kraska egiteko moduan eta arrautza gorringo ondua. Ni bonba aurrez jandakoa nintzen, baina behi tripakiekin egina. Entzunda nuen bakailaoenak ere gelatinakarak zirela eta testura bera izanik probatzea pentsatu nuen, osagai ezberdinak gehituta. Garbantzua irina erabili dut, esaterako, garbantzua, tripakiak eta arrautza plateran jatea sekulakoa delako niretzat.

♦ **Nondik ateratzen dituzu hain pintxo bereziak egiteko ideiak?**

Nik sukaldaritzan ikasi nuen eta hortan jardun dut lanean. Eibarko Txaltxa jatetxean, esaterako, urte eta erdian egon nintzen eta asko ikasi nuen. Sukaldean lan egiteaz gain, jatetxeetara joatea ere asko gustatzen zait, moko finekoa naizelako. Hontan aritzen den jendea ere ezagutzen dut, beraz, ideiak toki askotatik jasotzen ditut. Telebistako sukaldaritzan programak ikustea ere gustuko dut. Askotariko osagaiekin eta ideiekin probak egiten ditut eta senarrak dastatzen ditu.

Zer izan behar du pintxo on batek?

Gustuen araberakoa da hori. Esaten dute pintxoak hain ginkada batean edo bitan jan behar den aperitibo dela,

beraz, pintxoak ahoan sartzerakoan zapora nahasteak lurratu egin behar gaitu, baina beti ere osagai bakoitzaren zapora bereiziz. Pintxo on batek gauza ezberdin asko izan behar ditu eta horretarako probak egin behar dira

♦ **Zer ematen diogu garrantzia handiagoa, zaporeari ala teknikari?**

Zaporeari. Gurea pintxo

eta aperitibo taberna bat da eta kontuan hartuta hemengo poteoak nolakoak diren ezin ditut hamar ordu pasa prestatzen. Pintxoak onak izan behar dira eta azkar aterako ditugunak, bezeroa ezin baita hamar minututik gora zain egon. Teknika lantzeko ere gure sukaldea txikia da. Itxurari baina erreparatzen diogu, ikusitakoak erakartzen dituelako askotan bezeroak. Pintxoaren zerrendan irakurri arren, ikusi nahi izaten dituzte.

♦ **Azken lehiaketan zer da epaileek gehien baloratu dutena?**

Teknika, zapora eta platerako itxurari ematen dieten garrantzia handiena, baita sukaldariak ematen dituen azalpenak ere. Zerekin eta nola prestatu dugun azaldu behar dugu. Esaterako 0 km. saria eman zidaten gertuko osagaiak erabili nituelako: barazkiak merkatu plazan erosten ditut, ogia Elgoibarko okindegi batean, arrautzak ere herritar bati...

♦ **Bezeroek probatzen al dituzte lehiaketetako pintxoak?**

Pintxo hau ez da barran edukitzeko modukoa, prestatzeko zaila delako, baina probatzeko eman diegu. Herriko lehiaketarako prestatzen ditugunak ere jaten dituzte. Gure barra ikusita artea dugula esaten digute. Taberna hartu nuenean pintxoaren karta ona zegoen. Klasikoenak utzi nituen eta pixkanaka berriak sartzen ditut. Gustatzen zait gauza klasikoak egitea, baina ukitu berezia emanez.

♦ **Zein pintxok du arrakasta gehien?**

Txipirotiak plantxan. Foie plantxan, ganba brotxeta eta ahuntz gaztarena ere gustuko dituzte eta goizetako patata tortilla segituan agortzen da.

♦ **Pintxo-potean zuen tabernan ere jende asko ibiliko da, ezta?**

Bai. Pandemiaren aurretik, ostegunetan, barra aldenik alde pintxoak beteta izaten genuen. Orain, pintxo ezberdinak egiten ditugu, baina kopuru txikiagoa. Hala ere, jenderik ez da falta izaten.



Elgoibarko pintxo lehiaketan hainbat sari jaso dituzte Viento Surren.

Eguberrietako opariak argazkitan

Eguberriak jai giroko egunak izan ohi dira eta aurten, pandemia dela-eta, hainbat ekintza bertan behera geratu diren arren, jai kutsua emateko argiekin batera izan da herria argitu duen beste ekitaldirik: jaiotzak, Elgoibarren 675. urteurrena, Udal Musika Bandaren kalejira eta gazta txapelketa. Oparirik ere ez da falta izan herriko etxeetan ezezik kaleetan ere: Olentzero eta Mari Domingiren bisita, Txankakuako otarrak eta Lekuederreko tirolina. Argazki gehiago ikusteko: www.barren.eus



Jaiotzek izaten dute protagonismoa Gabonetan. Elgoibarren, Cesar Carvallo Elgojaitzako kideak martxan ipini eta jaiotza mekanikoa ikusgai izan da bi irudi berrirekin; Mendaron, Garagartzako eta Azpilgoetako elizetan herritarrek egin dako jaiotzak ipini dituzte. Guztiak urtarrilaren 9ra bitartean egongo dira ikusgai. Bestalde, umeen jaiotza lehiaketan 104 parte hartzaile izan ziren eta 28 lan aurkeztu zituzten. Irabazleak Jare Juaristi, Nora Garate, Maule Bengoetxea eta Maria Amaro izan ziren.



Elgoibarren 675. urteurrena ospatu zuten abenduaren 20an, eta beste ekintza batzuen artean, Julen Zabaletaren marrazkiekin osatutako 'Yulen, 100 urte' liburuak aurkeztu zuten. Marrazteko zaletasuna izan du umetatik, eta Euskal Herriko eraikin, festa, pertsonaia, paisaje eta bestelakoak marraztu ditu. 7.000 marrazki inguru egin ditu, eta makina bat historialari eta idazleren liburuak ere ilustratu ditu. Horietako marrazki batzuez gain, bere 100 urtetako biografia ere jaso dute liburuan.

Olentzerok oparia ekarri du herriko umeentzat: Lekueder parkean ipini duten tirolina. Abenduaren 24an estreinatu zuten umeek eta gustura ibili dira tirolinan aldenik alde. 13 metroko luzera duen tirolinak erabilera berria eman nahi dio Lekuederreko berdeguneari, ó eta 14 urte bitarteko haurrentzako ingurunea sortuz.





Gabonetako kontzertu berezia eta Errege Egunekoa bertan behera utzi ditu Udal Musika Bandak COVID-19aren ondorioz. Baina abenduaren 24an musika zaleak gustura utzi zituzten bandakoek. Izan ere, Gorka Mujika zuzendariaren gidaritzapean herrian barrena kalejira egin zuten Gabon giroko abestiak eskainiz.



2021. Urteko Gazta Txapelduna aukeratzeko lehiaketa jokatu zen abenduaren 31n, Elgoibarko udaletxeko pleno aretoan. Kalamua elkarteak eta Elgoibarko Udalak antolatutako sariketa honen 13. edizioa izan zen 2021ekoa. Aurten beste txapelketaren bat irabazitako bederlatzi gaztagilek hartu zuten parte eta hainbat sukaldarik eta Idiazabal Jatorri Izendapeneko ordezkariak dastaketa egin ostean, epaileek Urdazubi-Urdaxeko Bengoetxea Lastiri gaztandegiko gazta aukeratu zuten txapelkun. 1.500 euroko diru sariaz gain, txapela eta egurrez egindako kaikua jaso zituzten.



Elgoibarko Izarrak urtero antolatzen duen Gabonetako bertso jaialdia izan zen abenduaren 28an Herriko Antzokian. Uxue Alberdi gai-jartzailearen esanetara aritu ziren Igor Elortza, Aner Euzkitze, Oihana Arana, Nerea Ibartzabal eta Maialen Lujanbio bertsolariak. Bertaratutako bertsozaleek jaialdian gozatzeko aukera izan zuten gai serio zein umorezkoekin eta baita jolas giroko ariketekin ere. Txalorik eta barrerik ez zen falta izan bertso saioan askotariko gaien inguruan jardun ziren bertsolarientzat.



Olentzero eta Mari Domingi traktore gainean ailegatu ziren Elgoibarrera abenduaren 24 eguerdian. Herriko umeek azkenengoz ikusi zutenetik bi urte joan ziren eta musukoa jantzita azaldu arren, erraz ezagutu zuten bizar luzedun olentzero. Maalan ongi-etorria egin eta traktorea inguratu zuten umeek eta kalejiran pasa zituzten herriko kaleak. Gutunak eskura emateko aukerarik izan ez arren, bereziki berarentzat ipinitako postontzietan eskutitzak bota eta opariak jaso zituzten umeek.



Mendarora arratsaldean egin zuten bisita Olentzerok eta Mari Domingik. Han ere umeak zain zituzten eta kalejiran zeharkatu zituzten herriko kaleak, trikitilariak ipinitako jai giroko doinuak lagun. Mendaroko umeek ere ez zizkieten Olentzero eta Mari Domingiri Gabonetako gutunak eskura eman, udaletxe aurreko zakura bota behar izan zituzten eskutitzak opariak eskatuz.



Txankakuak Gabonetako kanpainen harira sei otar zozketatu zituen herriko denda txikietako bezeroen artean eta hauek izan ziren irabazleak: Arrate Alberdi, Oihana Lopez, Mariaje Ansola, Leire Idarraga, Ion Arrieta eta Iban Arantzamendi.



Sarek deituta abenduaren 24 iluntzean kantaldia egin zuten hainbat elgoibartarrek Kalegoen plazan herriko musikariekin. Besteak beste Koska taldeak sortutako *Ama esnez* abestia eta *Hator*, *hator* gabon kanta abestu zituzten elkarrekin.

Garizumia baiño luziagua izan:
 Oso luzea (altua) den pertsonari esan ohi zaio.

Elgoibarko eta Mendaroko errege kabalgatak gaur, 18:00etan

Gaur, urtarrilak 5, erregeen kabalgatak izango dira Elgoibarren eta Mendaron. 18:00etan abiatuko dira eta ohiko ibilaldia egingo duten arren, ez da geldialdirik izango. Mendaroko Udalak eta Arno Guraso Elkarteak eta Elgoibarren antolakuntzaz arduratzen diren katekesiko kideek eskatu dute segurtasuna bermatzeko jende pilaketak saihestea eta eskutitzak erregeei eskura ez emateko, horretarako ipini baitituzte postontzi eta zakuak. Bestalde, aurten gozokirik ez dutela banatuko ere jakinarazi dute.



Udal Musika Bandaren Errege Eguneko kontzertua bertan behera


Errege egunean urteroko kontzertua egitekoa zen Udal Musika Banda, baina pandemia egoera dela-eta bertan behera utzi dute. Hurrengo kontzertua otsailaren 20rako aurreikusi dute, baina zehaztuko dute data gurturatu ahala.

Programazio zabala eskainiko du Udalak 2022ko lehen seihilekoan Herriko Antzokian

Elgoibarko Herriko Antzokirako 2022ko lehen seihilekorako programazioa prest du Udalak. Punta puntako ikuskizun eszenikoekin eta kontzertuekin gozatzeko aukera izango da. Euskal artista esanguratsuez gain, herriko hainbat artistek ere ikuskizunak eskainiko dituzte. Urtarrilean Ruper Ordorika, Go!azen 8.0 taldea, Arineketa eta Yllana antzerki taldea *Greenpiss* lanarekin arituko dira; otsailean *Lehendakari gaia* antzerkia Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxagarekin, Jazzbana Ensemble *Bidai on*, *Amona Braulia* antzerkiarekin eta Zelanda eta Dientes de Lunaren kontzertua.

Hurrengo hilabeteetan arituko diren elgoibartarrak, Sustrai akordeoi taldea, Biraka Dantza Elkarte eta Udal Musika Banda izango dira eta Musika Eskolako jaialdi bat baino gehiago ikusteko aukera ere egongo da sei hilabeteotan. Herriko artistak taularatzeaz gain, herriko gazteak kultura jardueretara erakarri nahi ditu Udalak. Horretarako, gazte txartela erabiliz gero, ikuskizun eta kontzertu guztietarako sarrerak hiru euroren truke erosi ahal izango dituzte.

Antolatutako emanaldi guztietarako covid-19aren aurkako neurriak hartu nahi izan ditu Udalak, eta, momentuz, ekitaldi guztietarako aforoa %60koa izango da. Informazio gehiago jasotzeko eta sarrerak erosteko bidea <https://herrikoantzokia.eus/> webgunea kontsulta daiteke.



Elgoibarko Udalak eta Elhuyarrek bigarrenez egingo dute 'Otsailaren 11 erakusleihoak' ekimena

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna da otsailaren 11n eta horren harira, Elgoibarko dendak emakume zientzialarien irudiekin jantzi nahi dituzte, otsailaren 11tik 25era bitartean. Gazteek zientzia eta teknologiako proiektuak garatzen dituzten Bizilabe eskolaz kanpoko proiektuaren baitan kokatu dute ekimen hau. Dendek eta zerbitzuek urtarrilaren 13ra bitartean eman beharko dute izena esteka honetako dokumentua beteta: <https://labur.eus/otsailak11elgoibar>

Elgoibarko Udalak, Elhuyar, Danobat Group, Egur Arte tailerra eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin batera, komertzio eta zerbitzuak gonbidatu nahi dituzte parte hartzera.

Denda bakoitzari emakume zientzialari bat proposatuko diete eta haren ikerketa-gaia inspirazio iturritzat hartuz, erakusleioa apaindu beharko dute, Egur Arte tailerraren laguntzarekin.



Txapeldun olimpikoak eta munduko txapeldunak izango dira Mugertza krosaren itzuleran

azko etenaren ostean, domeka honetan, urtarrilaren 9an, jokatuko da Juan Muguerza Nazioarteko Krosaren 78. ekitaldia. Euskal Herrian jokatzen den atletismo probarik garrantzitsuenak goi mailako parte hartzea izango du aurtengoan ere, txapeldun olimpikoak eta munduko txapeldunak lotu baitituzte Mintxeta Atletismo Taldekoek. Eguazten eguerdian egin duten aurkezpenean eman dute krosean parte hartuko duten antxixikari nabarmenen berri. Gizonezkoetan Mintxetako zirkuitua ondo baino hobeto ezagutzen duten bi lasterkari afrikar nabarmendu behar dira. Batetik, Joshua Cheptegei (Uganda, 1996), 2017ko Mugertza krosako irabazlea. Cheptegeik Munduko Kros Txapelketa irabazi zuen Elgoibarren garaipena eskuratu eta bi urtera, eta joan zen udan urrezko domina irabazi zuen Tokioko Olinpiar Jokoetan, 5.000 metroko lasterketan. Gainera, munduko errekorrak ditu 5.000ko eta 10.000 metroko probetan. Bestetik, Aron Kifle (Eritrea, 1998) da Elgoibarko krosa barrutik ezagutzen duen bigarren faborittoa, hirugarren egin baitzuen orain arte jokatutako azkenengo Mugertza krosean, 2020an. Atletia eritrearrak laugarren postua lortu zuen 2019ko Munduko Kros Txapelketan. Eta palmaresaren gaineratik, sasoi betean etorriko dela da aipagarriena, Atapuercako krosa irabazi berritan ailegatuko baita Elgoibarrera. Nicholas Kipkorir Kimeli (Kenya, 1998) eta Nibrek Melak dira domekan kontuan hartzeko beste bi atleta. Kimelik laugarren egin zuen Tokioko Olinpiar Jokoetan, 5.000 metroko lasterketan; eta, Melakek, hirugarren egin du Italicako kros entzutetsuan eta

txapeldunorde izan da Venta de Bañoseko krosean. Italiako kros txapelduna den Iliass Aouani italiarra eta Adel Mechaal espainiarra ere nabarmendu dituzte antolatzaileek.

Antxixikari nabarmenenak emakumezkoetan

Emakumezkoetan ere Mugertza krosako podiumera igoztea zer den dakiten antxixikariak izango dira garaipena eskuratzeko faborito argienak. Beatrice Chepkoech (Kenya, 1991) da horietako bat. 3.000 metro oztopo-lasterketako munduko txapelduna, eta probako munduko errekorren jabe den emakumeak bigarren postua lortu zuen Elgoibarren, 2019an. Beatrice Chebet (Kenya, 2000) izango du aurkari nagusietakoa. Junior mailako munduko kros txapelduna da keniar gaztea, eta honek ere ezagutzen ditu Mintxetako zirkuituko aldapak eta bihurguneak, bigarren egin baitzuen 2020an jokatutako krosean. Lasterketa hartan bere atzetik sartu zen helmugan Esther Chebet (Uganda, 1997), Atapuerca eta Italicako krosetan emaitza onak lortzeko datorren saltakaria. Aintzat hartzeko korrikalari gehiago ere badaude, besteak beste, Venta de Bañoseko krosean gailendu berri den Edinah Jebitok (Kenya, 2001), junior mailako Munduko Txapelketan, 5.000 metrotan, brontzezko domina irabazi duen Chebet ugandar gaztea, 2011n Elgoibarko krosa irabazi zuen Sara Moreira portugaldarra, Emine Mechaal turkiarra edo Espainiako kros txapeldunordea, Carolina Robles. Antolatzaileek ikusleei dei egin diete osasun neurriak bete ditzaten: elkarren arteko distantzia-mantentzea, gel hidroalkoholikoa erabiltzea eta maskara janztea.



Urrezko Aizkolarien Kopa irabazi du Hodei Ezpeletak

Makina bat txapel irabazi ostean, Hodei Ezpeletak ez du berehalakoan ahaztuko 2021. urtea, eta urteko azken egunean ere garraipen berri bat lortu zuen Urrezko Aizkolarien Kopako finala irabazita. Egur Sport enpresak antolatuta, herri kiroletako bost txapelketa jokatu zituzten abenduaren 31n, Asteasun, eta horietako bat izan zen Urrezko Aizkolarien Kopako finala. Hodei Ezpeleta, Jokin Urretabizkaia Basozabal eta Julen Gabirondo (berez Xabier Zaldúa zen izatekoa) aritu ziren lehia finalean, eta Ezpeleta gailendu zen, bere lanak 27 minutu eta 13 segundotan amaituta. Basozabal donostiarra sailkatu zen bigarren postuan (28 minutu eta 14 segundo), eta hirugarren Julen Gabirondo urnietarra izan zen (30 minutu eta 01 segundo).



Etxaniz eta Basurto, Gipuzkoako txapelak

Lagunak pilota eskolako Eneko Etxanizek eta Beñat Basurtok osatutako bikoteak eskuz birnakako Gipuzkoako txapelketa irabazi du, kadeteen 3. mailan. Zestoako Abantzu taldeko Unanue eta Lizarralde izan zituzten aurkari joan den abenduaren 26an Ikastolako frontoian jokatu zuten finalean eta etxeko pilotariak gailendu ziren 22 eta 21eko emaitza estuarekin bukatu zen finalean.

Bazkide berriak erakartzeko kanpaina abiatu du Lagun Taldea txirrindulari eskolak

2022ko denboraldirako bazkide berriak erakartzeko kanpaina jarri du martxan Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak. Urteko 20 euroko kuota ordainduta, bazkideek txirrindulari eskola laguntzeaz gainera, hainbat abantaila izango dituztela azaldu dute; Bike 360, Gobike eta Bizkor bizikleta dendetan eta baita Astigarraga kirol dendan ere. Era berean, txirrindularitza lizentzia berritzeko edo berria ateratzeko aukera ere zabalik dagoela jakinarazi dute. Interesa dutenek eskolako zuzendaritzarekin jarri behar dute harremanetan. 2022 denboraldikoa 160 euroko kuota ezarri du Euskadiko txirrindularitza federazioak, 2021 denboraldia baino 25 euro gehiago. Informazio gehigarririk nahi izanez gero elt_xe@hotmail.com helbidera idatzi daiteke. Azkenik, denboraldi honetarako babesle berria dutela ezagutzera eman dute: Dikar enpresa bergararra.

San Anton Torneoko finalerdiak

Lagunak Pilota Eskolak antolatzen duen San Anton Pilota Txapelketako finalerdiak jokatu dituzte, barikuan eta zapatuan, Ikastolako frontoian. Bi egunetako jaialdiak 22:00etan hasiko dira. Barikuan, Egiguren eta Iztueta bikotea Aranbarrik eta Belokik osatutako bikotearen aurka lehiatuko da promesen arteko norgehiagokan, eta seniorretan Murua eta Arbizu bikoteak Alberdik eta Aizpuruk osatutakoa izango du aurkari. Zapatuko finalerdietan beste bi partida jokatu dituzte, promesa mailakoa (Irribarria II - Eskuza / Amiano - Ugartemendia) eta seniorretakoa (Mata - Morgaetxebarria / Exposito - Irazustabarrena).

LAGUNAK
colchonera textil hogar

Urte berri on!

- ★ Kotoizko izara organikoak
- ★ Ehun iraunkorrak
- ★ Kotoi organikoa, leuna, naturala, transpiragarria eta hipoalergenikoa

GOTS ziurtagiriarekin

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Kirol

sariak

2021



Colin Iga
(Judoa: Egokran kluba)



Aitziber Olaizola
(Hiru Txirlo Bolo Elkartea)



Mayi Mujika
(Morkaiko Mendizale Elkartea)



Jesus Zinkunegi (Herri Kirolak:
Sigmako Probalekua Elkartea)



Josu Arrillaga
(Arku tiraketa: Zarta)



Nere Arregi
(Mintxeta Atletismo Taldea)



Imanol Alvarez
(Lagun Taldea txirindulari elkartea)



Josexo Arakistain
(Futbola: C.D. Elgoibar)



Izan Arcos
(Karatea: Olaizaga Kirol Taldea)



Maite Zabala
(Elgoibarko Igeriketa Taldea)



Beñat Basurto
(Lagunak Pilota Eskola)



Iban Bello
(Ehiza: La Union)



Kirol Federatuaren Urteko Sarietako saridun guztiak, Inazio Bereziartua Musika Eskolako auditoriumean egin zuten ekitaldian.



Jone Balmaseda
(40 -15 Tenis Elkartea)



Juanma Lopez
(Sanlo Eskubaloit Taldea)



Santi Fernandez
(Zubi Ondo Xake Taldea)



Joseba Narbaiza
(Urbizi Urpeko Jardueren elkartea)



Ekaitz Atxa
(Motoak: Urnabitza Kirol Kluba)



Alex Aranzabal
(Elgoibarko Saskibaloit Taldea)



Markel Kerexeta
(Kiroltasuna: Udal Kirol Patronatua)



Gorane Ayesta
(Errugbia: Udal Kirol Patronatua)



Igor Elizburu
(Handbike: Udal Kirol Patronatua)

LANA.....

Eskaerak

Pertsona nagusiak zainduz lan egiteko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Garbiketa lanetarako ere prest nago, etxeetan edo bulegoetan.

☎ 641 322 939

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arropak garbitzen eta lisatzen esperientzia daukat. Ospitalean gauak pasatzeko ere prest nago. ☎ 643 427 770

Adinekoak zaintzeko prest nago, ospitalean ere bai. Igeltsero, pintore, edo fresatzaile lanetarako ere prest nago. Paperak legez ditut.

☎ 634 692 962

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 688 739 536

Eskaerak

Bi mekanikari behar dira, doikuntza eta muntaia lanetarako. Curriculumak Zarauzko 309 posta-kutxatilara bidali behar dira.

Goizez etxea garbitzeko pertsona bat behar dugu. ☎ 699 143 767

Zerbitzari euskalduna behar da.

☎ 652 746 246

Adinekoak zaintzeko pertsona bat behar dugu. Adinekoak zaintzeko titulazioa edukitzea ezinbestekoa da.

☎ 675 706 139

Lanbide Heziketako Administrazio eta Finantza ikasketak egiten ari den ikasle bati kontabilitateko eskola partikularrak emateko pertsona bat behar dugu.

☎ 646 113 085

Adineko bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. Baserrian bizi gara, beraz, autoa edukitzea ezinbestekoa da. Adinekoak zaintzeko titulazioa eskatzen dugu.

☎ 615 721 771

GARAJEAK.....

Garaje marraduna alokatzen dut, Pedro Mugurutz 11n.

☎ 669 916 148 / 943 531 648



Nerea Olea Lequerica
Abokatua

Zibil-Jabetza horizontala
Komunitateen kudeaketa

Jausoro plaza, 3 - behea
Elgoibar
943 531 351 / 685 708 606
zurealde.elgoibar@gmail.com



BM
bronymec

Termoplastiko eta Konposizen
Mekanizazio lanak
Metal Ez-Ferrikoak

@BronymecSA



Consejo Asesor de Colegios de Administradores de Honorarios
Instituto de Estudios Administrativos para el Comercio



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Estatutuek debekatu dezakete animaliak edukitzea?

Jabe orok ditu bakoitzaren etxeari dagozkion eskubide berezi eta esklusiboak. Beraz, norbere etxeko mugen baitan nahi dituen ekintzak egin ditzake, baldin eta gainontzeko bizilagunen interes komuneko eskubideak urratzen ez baditu. Etxeko animalia baten jabeak bere animaliaz gozatzeko eskubidea du eta legeak ezarritako mugak baino ez ditu bete behar. Beti ere legedia zentzuz bete eta etxeko bizigarritasunean zein elkarbizitza bakesuan eragiten ez badu. Irizpide hauen harira eztabaidagarria da eraikineko elementu pribatuetan etxeko animaliak edukitzeari buruz estatutuetan debekuak egotea. Izan ere, horrelako debekuak jabetza pribatuetan muturra sartzea lirakeke. Bestalde, eraikinaren elementu edo instalazio komunen zein bizilagunen komunitatearen adostasun edo erabakien bidez ezarritako barne araudi batek ezingo luke oztopatu animaliak edukitzea.

Ondorioak: kasu zehatz bakoitza aztertuz gero, etxebizitza zein animalia-erregimenaren gozamenak izan ditzake mugak. Horietako batzuk honakoak dira: etengabe edo orokorrean trabak sortzea, animalien jabetzak araudiak ezarritako arriskuak eragitea edo bizilagunei kalte egitea utzikeria zein osasunaren kalterako baldintzek.




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 📞 688 634 044 bidalita.




Zorionak, **Ander**, urtarilaren 8an 7 urte beteko dituzulako. Etxekoen partez, zorionak eta muxu asko.

Urtarrilaren 9an, 10 urte! Zorionak, **lhintza!** O n d o - o n d o pasa eguna. Muxu handi bat familia osoaren partez.

Zorionak, **Leal!** 3 urte dagoeneko! Muxu handi bat etxekoen partez.

Zorionak, **Ander**, zure 9. urtebetetzean. Patxo potolo bat familiakoaren partez.



Zorionak, **Udane**, gaur 5 urte bete dituzulako. Patxo handi bat familiako guztion partez.

Zorionak, **aitatxo eta amatxo!** Urrezko ezteiak! Hori meritu! Meretzitako ospakizunaz gozatuko dugu. Orain dela 50 urte ezkondu zinetelako, guraso onenak ditugu. Zorionekoak gu. Asko maite zaituztegu.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

HAIR'S
ILEA PAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN
EGUNA:

- Orraztu **12€**
- Garbitu, moztu eta orraztu **24€**

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

25.
urteurrena

SURYA
BELAR-DENDA

📞 943 742 534 📞 630 878 054

surya-belardenda@hotmail.com
San Frantzisko, 23 - Elgoibar
www.dendago/surya.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

ROWENTA DW9217D1
ARROPA LISAGAILUA

69,90 €

- 2750 W.
- 190 lurrun-kolpe minutuko.
- Microsteam 400 profile-a zolan.
- Segurtasuneko itzalitze automatikoa.

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

5 EGUAZTENA

18:00 Errege Magoen desfilea, Elgoibarren eta Mendaron.

6 EGUENA

11:30 Kristau ikasbidekoen meza. San Bartolome parrokian.

7 BARIKUA

22:00 San Anton pilota txapelketako finalaurrekoa. Lagunak Pilota Elkarteak antolatuta, Ikastolako frontoian.

8 ZAPATUA

19:00 Mobilizazioa: Sarek antolatuta, Makis musika taldearen inguruan bilduko dira herritarrak Maalako parkean, eta handik Kalegoen plazaraino egingo dute bidea preso eta exiliatuen eskubi-deen alde.

22:00 San Anton pilota txapelketako finalaurrekoa. Lagunak Pilota Elkarteak antolatuta, Ikastolako frontoian.

9 DOMEKA

10:00 Nazioarteko Mugertza krosa. Mintxeta atletismo taldeak antolatuta, Mintxetan.

Zinea (Herriko Antzokian)

'La familia perfecta'
6 eguna: 19:00

'Cerca de tí'
7 barikua: 21:00
8 zapatua: 19:00 / 22:15
9 domeka: 19:00
10 astelehena: 21:00

'Clifford, el gran perro rojo'
9 domeka: 16:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

| 5 EGUAZTENA | 6 EGUENA | 7 BARIKUA | 8 ZAPATUA | 9 DOMEKA |
|-------------------------------|--------------------------|---------------------------------|-------------------------------|---------------------------|
| Egunez: Barrenetxea | Egunez: Yudego | Egunez : Garitaonandia | Egunez: Arriola | Egunez: Arriola |
| Iluntzean: Barrenetxea | Iluntzean: Yudego | Iluntzean: Garitaonandia | Iluntzean: Arriola | Iluntzean: Arriola |
| 10 ASTELEHENA | 11 MARTITZENA | 12 EGUAZTENA | 13 EGUENA | 14 BARIKUA |
| Egunez: *Fernandez | Egunez: Yudego | Egunez: *Oruesagasti | Egunez: Barrenetxea | Egunez: *Ibañez |
| Iluntzean: Barrenetxea | Iluntzean: Yudego | Iluntzean: Garitaonandia | Iluntzean: Barrenetxea | Iluntzean: Yudego |

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Esther Mendiñeta Berastegui.
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)
943 820 106



Angel Kortaberria Idigoras

"Otsua"

2021eko abenduaren 27an hil zen, 74 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA
Valentin Egaña Lizundia

2021eko urtarrilaren 7an hil zen.

*Bizitzan eman zenigun guztia
zurekin gordeta daukagu pozik.*

*Bihotz baretik esanda:
Valentin agurrik ez, gero arte baizik.*

Etxekoak



II. URTEURRENA

Ramon Aramburu Igarzabal

2020ko urtarrilaren 3an hil zen, 84 urte zituela.

*Gizon umila, gizon alaia,
argi ta eskuzabala;
aita, senar ta lagun artean
izan zara espeziala.
Urteak gogor ta hotz jo gaitu
hasi eta berehala...
Jakin gure bihotzetan beti
bizi izango zerala.*

Etxekoak



V. URTEURRENA

Pedro Jose Ansola Garate

2017ko urtarrilaren 5ean hil zen, 57 urte zituela.

*Neguko egun hotzenetako
eguzkiaren epelean,
ekaitzaren ostean datorren
itsasoaren barean,
magala igo eta tontorra
gozo-gozo dastatzean,
zure lagunon irribarrean
eta bihotz barrenean,
ezin liteke lagunik ahaztu
benetan maite denean.*

Erre Arte kuadrilla



G R E M I O N E N GIDA

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

ELEKTRIZATEA

egoluz

ELEKTRIZATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behe
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Erosario kalea, 15 behe - Elgoibar

- ⊕ Proiektuak eta erreformak
- ⊕ Sukaldeak
- ⊕ Gremioen koordinazioa
- ⊕ Obren zerbitzu integrala

**943 744 019
605 713 168**

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

**LODOSO
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90



ARROZTEGIAK

Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK

Albituri industrialdea, 1-O/ 1-P

943 740 547



MAR
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behe

943 531 471

609 054 978

carpinteriamar@hotmail.com



iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9

20850 Mendara

Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

Aroztegia · Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

BIENA S.L.

ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16

tel/fax. 943 743 116

www.biena.eus

info@biena.eus



ITURGINTZA

ONGI iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 1

ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

SANTANA



Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe

Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905

santanaiturgintza@gmail.com

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8

Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565

tienda@pagoagasa.com

www.pagoagasa.com

BILTEGIA

San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279

taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

MIGUEL AZPIRI
iturgina

Iturgintzako eta berokuntzako
ordezkapenen konponketak.

635 133 841

**Berehalako zerbitzua
ematen da!**

